

Bizi pasioz

**Xabier Mikel
Errekondo**

Pasa den larunbatean Aginagan (Usurbil) Akelarrek azken kontzertua eman zuen jotzen hasi eta mende erdira, eta ni ere han izan nintzen.

Egia esan, ez nuen asmorik, baina inguratzeak duen arriskua... giroaren zurrunbiloan sartu eta konturatzerako kontzertuaren erdian aurkitu nintzen. Badakizue nola gertatzen diren horrelakoak, ez da askorik behar... Dantzarako inpultsoak herdoilduta dauzkagula, ba blaitu Keler batez, edo biz, edo... Momentikoa gozatzeko inspirazio faltan zaudela, ba sartu Chester pizgarri

baten lainopean, edo birenean, zurea eta nornahirena, ze axola. Zurrutada, piztu eta zupa bakoitzak Akelarreko Batizen pua kolpea zirudien, ahots kor-dak inspiratu eta berriketa dantzan jartzen zaituen pua. Ahaztuak nituen taldearen kantak baina zurrut eta zupa artean barrua harrapatu zidaten kili-mek, oinetatik gerriraino dantzan jartzeraino. Ez dugu askorik behar, demonio.

Ez, ez nuen kontzertura agertzeko asmorik, nostalgia gehitxo. Baina bertan nengoen eta, hori bai txosnaren pare-tik askorik aldendu gabe, Akelarrerren

azken akordeak gozatu egin nituen... garagardoz blai eta madarikatua duten zigarro-zupa dastatuz errenkadaren ke artetik.

Osasuna zaintzeko tonaka aholku etsigarriren gainetik ene zoriona zain-tzeko apustua egiten dut.

Izan ere, bizitza bizitzeko daukagun aukera baino ez da, aukera bakarra. Be-raz, jokatu ausart eta eman pausoak unerik ttipiena ere sentitzeko, zabaldu atea kilimek jan gaitzaten eta eman bi-de pasioari, era guztietako pasioei, pa-sioagatik merezi du eta osasuna bera ere jokoan jartzea. •

Kortsea lasaitzen

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Lasaitzen nau, eta aukerak ireki-tzen dizkit, bizitza etengabeko ikasketa dela ulertzeak. Eta, gor-putzeko poro guztiak zabalik di-tudala, ikastearen apologia egingen dut. Garrantzitsua iruditzen zait ez epaitzen ikastea, ezinezkoa ezin dela onartzen ikastea, irekitzen ikastea. Zabiltzan bide-tik ezin bada, mugitu pixka bat eta saia-tu; lortuko duzu. Aholku hori eman zi-daten elkarrizketatu batzuek, ofizio hau zenbat maite dudan oroitarazi zidan so-lasaldi batean.

Bertze mahai-inguru batean, 68ko Maiatza eta feminismoa lotu zituzten

eta hizlarietako batek, Marina Subira-tsek, 13 urte zituela amak jarri zion kor-tsea (benetakoa, fisikoa) aipatu zuen. «Lasterka egiten baduzu, haragia mugituko zaizu eta hori hagitz baldarra da», ohartarazi zion. Kortsea mentala ere ba-zen, jaio aitzinetik destinoa marraztua zuten. Izugarri mugatuak zeuden ema-kumeak. Hain moztua zuten desioa, zai-la egiten zitzaientza barrenean zer nahi zu-ten jakitea ere.

68ko Maiatz frantsesaren funtsezko elementu bat desafiatzeko gaitasuna ateratzea izan zen: «Eta zu zein zara niri lezioak emateko?». Garai hartan Parisen

ikertzaile ibili zen Subiratsek azaldu zuenez, orduan zalantzan jartzen hasi ziren norbaitek zer egin behar dugun errateko izan dezakeen legitimitatea.

Eta gaur egun, nolakoa da gure kor-tsea? Emakume zein gizonek, gorputze-an zein buruan jantzita daramagula erranen duke. Arauak behar ditugu zibi-lizazioan bizitzeko, baina horiek aldatu egiten dira kulturaren arabera eta ez ga-ra egia absolutuaren jabe. Behar ditugu arauak, baina baita horiek zalantzan jar-tzea ere.

Ze euforia kortsea askatzean eta ikas-keta prozesuaz jabetzean! •